Bere barnean egindako zundaketak estratuaren gaitasuna (60 zm.koa) ezagutarazi du, eta protohistoriako buztingintzako gaiak agertu ditu. Murruaren zabalera dela-eta, gainazaletiko indusketa beharko zuenez, zundaketa hauekin bertan ez ekitea hobetzi dugu, eta indusketako lehenengo kanpainarako utzi da horren azterketa.

B sektorea murrutik kanpora dago, baina hurbil (ikus B sektoreko mapa), eta gure ikuspuntutik, hilerri bat izango litzateke. Gure eritzi hau indartzeko, gorago deskribatu ditugun moduko hilarrietako zenbait aurkitu dira bertan eta hortan oinarritzen dugu.

Bertan egin den zundaketak estratu arkeologikoa urria dela (20 zm.) eta oso andeatua dagoela konstarazi digu.

Gainaldetik zentrimetru gutxitara dagoen estratua da eta zoritxarrez oraintsu oraindik ohianeztaketa lanetan ziharduen makinekin nahasi dute. Ondorioz, praktikan hilerria hondatuta dagoenez, gainazalean bildu daitezke materialak zatikatuta, eta hura osatzen zuten hilarriak moztuta eta sakabanatuta aurkitzen dira.

Gure ustez, gune honen indusketa eginez, burutzen ari garen proiekto osatzeko beharrezko informazioak bil-

Castro de Berreaga.



Berreaga kastroa.

completar el proyecto en el que estamos trabajando, sino que pondremos de manifiesto la existencia de este yacimiento evitando que sea arrasado en su totalidad.

I.A.3.2.3.
**Cueva de Goikolau**
(Berriatua, Bizkaia)

Sondeo estratigráfico.
Dirigido por Carlos Basas Faure.
Subvencionado por Carlos Basas Faure y Mikel Unzueta Portilla.

La cueva de Goikolau ha sido objeto de dos fases de excavación e investigación en su historia:

— Las llevadas a cabo por D. José Miguel de Barandiaran durante los años 1935-1936 en que realizó una recogida de material superficial y la campaña de excavación efectuada en la entrada de la cueva en 1962.

— Las realizadas por el director de este sondeo que en 1980 excavó los enterramientos que se hallaban en el interior de la sima, y en 1981 la parte del testigo que se encontraba en la zona de acceso a la cueva.

Habiendo sido publicada la zona de la Necrópolis en 1986 y quedando pendiente el estudio de la zona de habitación en la fase tardorromana ya que había que aunar la excavación de 1962 con los pocos datos que aportó el testigo, se decidió pedir un permiso para sondear el exterior de la cueva y poder comprobar una serie de datos:

— Atestiguar si el exterior de la Cueva de Goikolau había sido utilizado como asentamiento en la época bajoimperial.

— Intentar delimitar si era posible el paso entre los estratos tardorromanos y los del Bronce o Hierro final.

Se ralizaron dos cortes estratigráficos.

El primero de ellos se llevó a cabo en la parte más llana, antes de comenzar un declive del terreno que lleva a la entrada de la cueva. El sondeo se practicó en una superficie de 2 x 1 m llegando a una profundidad de 0,50 m. El gran volumen de piedras y rocas impidieron el seguir profundizando. El hallazgo de un nivel arqueológico fue negativo.

El segundo sondeo se realizó en una zona más Inclinada y cercana a la entrada de la cueva. Las medidas de este sondeo fueron 2,5 x 1 m. Se profundizó en el



tzeaz gain, argi utziko due aztarnategi hori egon badagoela, eta horrela ez da oso-osoan hondatuko.

I.A.3.2.3.
**Goikoiau Leizezuloa**
(Berriatua. Bizkaia)

Zundaketa estratigrafikoa
Zuzendaria: Carlos Basas Faure
Dirulaguntzaileak: Carlos Basas Faure eta Mikel Unzueta Portilla.

Goikoiau leizezuloan bi indusketa eta ikerketaldi egin dira.

— Jose Miguel Barandiaranek 1935-1936 urteetan egindakoak, orduan azaleko materiala bildu zela; eta leizezuloaren sarreran 1962an burututako indusketa kanpaina.

— Zundaketa honetako zuzendariak egindakoak: 1980ean leizearen barrukaldean zeuden hilobiratzeak indusi zituen eta 1981ean, leizezulora sartzeko tokian zegoen lekukoaren zatia.

1986an, Hilerriari buruzkoa argitaratu zen eta egiteke utzi zen erromatar berantiarreko bizitegiaren ikerketa, bateratu behar zinerez gero 1962ko indusketaren emaitzak eta lekukoak emandako datu urriak. Horiek horrela, zenbait datu egiaztatzeko asmoz, leizezuloaren kanpokaldean zundaketa egiteko baimena eskatu zen. Hona hemen zundaketaren bitartez jakin nahi zena:

— Goikoiau leizezuloaren kanpokaldea behe-inperiar aroan bizitegi modura erabilia izan ote zen.

— Ahal izanez gero, geruza erromatar-berantiar eta Brontze edo Azken Burdin Arokoen arteko tartea mugatzea.

Bi ebaketa estratigrafiko egin ziren:

Lehenengoa tokirik lauenean egin zen, leizezuloaren sarreran dagoen maldagunea hasi aurretik hain zuzen.

Zundaketak 2 X m. eta 0,50 m.-ko sakonera hartu zituen. Harri eta harkaitz ugari zegoenez ezin izan zen gehiago sakondu. Ez zen maila arkeologikorik aurkitu.

Bigarren zundaketa, leizezuloaren sarreratik hurbilago eta maldan zegoen tokian egin zen. 2,5 x 1 m. hartu zituen zundaketak. Zundaketaren hegoaldeko sektorean

Goikolau.




Goikolau.

sector sur del sondeo hasta casi los dos metros. Obligados por la fuerte inclinación del terreno y de las rocas tanto en dirección oeste-este como norte-sur que dificultaban y hacían peligroso el seguir excavando.

En el sector sur de este sondeo se encontraron los niveles arqueológicos. Por lo que se refiere al estrato tardorromano se hallaba sellado por una capa de piedrecillas de tamaño pequeño (no más de 10 cm) cuya atribución desconocemos ya que bien pueden deberse a la voladura de rocas llevada a cabo en la entrada en 1962 para dejar un paso más fácil que el que hasta entonces se tenía, o bien como preparación de una superficie más plana para poder asentar la vieja verja que cerraba la entrada a la cueva.

Por debajo del nivel romano, un estrato de rocas, lajas y tierra con un espesor de 0,60 a 1 metro, arqueológicamente estéril. Una vez finalizado el mismo un estrato arqueológico con cerámica a mano correspondiente al Bronce o Hierro final.

Encontrándose a una distancia cercana, el último sondeo, con respecto a la antigua excavación a D. José Miguel de Barandiaran de 1962, se decidió conectar ambas excavaciones. Se trazó un sondeo de 2 m por 0,50 m de anchura, profundizándose tan sólo hasta el nivel romano. De este modo pudimos determinar con más precisión la estratigrafía de Goikolau que hasta el momento era difícil de identificar al faltar unos mínimos criterios para la separación de los distintos niveles con fiabilidad. Asi apoyados en el nivel romano se dibujó la estratigrafía que había dejado D. José Miguel de Barandiaran.



ia bi metroraino sakondu zen. Lurzorua oso maldatsua izateak eta mendebalde-ekialde nahiz iparralde-hegoalde norabidez ageri ziren harkaitzek zaildu eta arriskutsu egiten zuten industen jarraitzea.

Zundaketa honen hegoaldeko sektorean maila arkeologikoak aurkitu ziren. Geruza erromatar-berantiarrari dagokionez, oso neurri txikiko (ez 10zm. baino gehiago) harri geruza batez estalia zegoen. Ezin nondik datorren harri geruza hori; baliteke, leizezulorako sarbidea erosoagoa egin asmoz edo leizezuloaren sarrera istem zuen burni-hesi zaharra jartzeko 1962an egindako harri leherketaren ondorio izatea.

Erromatar mailaren azpian, arkeologiaren ikuspuntutik begiratuta antzua gertatu zen harkaitz, harloza eta lurrezko 0,60tik metro lera bitarteko geruza aurkitu zen. Hori bukatu ondoren, Azken Brontze edo Azken Burdin Arokoa litzatekeen geruza arkeologikoa topatu zen, eta bertan eskuz eginiko keramika.

Jose Miguel Barandiaranek 1962an egin zuen zundaketa eta azkeneko hau bata bestearengandik nahiko hurbil zegoenez gero, bi indusketak elkarlotzea erabaki zen. 2m. x 0,50m.-ko zabalerako zundaketa egin zen, erromatar mailaraino bakarrik jaitsiz. Horri esker, zehatzago eman ahal izan zen Goikolauko estratigrafia, ordurarte mailak banatzeko gutxienezko erizpiderik ez zegoenez, zaila bait zen hori zehaztea. Beraz, erromatar mailan babesturik, Jose Miguel Barandiaranek utzitako estratigafia marraztu zen.

I.A.3.2.4.
**Calzadas de Bizkaia**

Sondeos estratigráficos.
Dirigidos por Amaia Basterretxea.
Subvencionados por la dirección de la intervención.

Durante este año se han llevado a cabo pequeños sondeos estratigráficos en diversas calzadas de Bizkaia, sondeos que no se han realizado en una campaña continua, sino durante fines de semana y con la colaboración desinteresada de un pequeño equipo Integrado por cuatro personas.

La finalidad de estos trabajos ha sido la comparación directa del método utilizado para la construcción de las diferentes calzadas y la evolución que podemos constatar en estos sistemas constructivos, a fin de poder hacer un seguimiento histórico de las diferentes vías de comunicación en el Duranguesado.

Entre los sondeos realizados destacan por su peculiaridad tres:

— Calzada de Mendiola a Abadiano (Urkiola-Bermeo)

— Calzada de Mekoleta a Otxandio y de Otxandio a Oleta

— Calzada de Arrazola a Aramaio

En ellas hemos de tener en cuenta un aspecto fundamental, cual es su planteamiento constructivo según su locallzación geográfica, esto es, zona de valle o de montaña puesto que por ello cambian los elementos de sustentación y modo de disposición del empedrado. Este punto puede comprobarse en cualquiera de los tres tramos de calzadas mencionados, especialmente en la referida de Arrazola a Aramaio.

— Calzada: MENDIOLA a ABADIANO

De esta calzada que unía Abadiano con Urkiola quedan pocos y aislados restos de los cuales, el principal es el que actualmente pone en contacto Abadiano con la Barriada de Mendiola en Atxarte. El firme que conserva y según la documentación consultada pertenece a la reparación que se hizo en 1865 y su estructura corresponde plenamente con la descripción que en dicha documentación se contempla.

I.A.3.2.4.
**Bizkaiko Galtzadak**

Zundaketa estratigrafikoak.
Zuzendaria: Amaia Basterretxea
Dirulaguntzailea: Zundaketaren zuzendaritza.

Aurten, Bizkaiko zenbait galtzadatan zundaketa estratigrafiko txikiak egin dira. Zundaketa horiek ez dira kanpaina jarraitu baten barruan antolatu, asteburuetan eta lau kidez osaturiko talde baten ordainik gabeko laguntzaz baizik.

Durangaldeko komunikabideen jarraipen historikoa egin asmoz, galtzadak eraikitzeko erabilitako metodoak erkatzea eta eraikuntza sistema horietan ikus daitekeen bilakaera aztertzea izan dira lan horien helburuak.

Egindako zundaketen artean, hiru dira aipagarrienak:

— Mendiolatik Abadinora doan galtzada (Urkiola-Bermeo)

— Mekoletatik Otxandiora eta Otxandiotik Oletara doan galtzada.

— Arrazolatik Aramaiora doan galtzada.

Galtzada horietan kontutan hartu beharreko alderdirik funtsezkoena, kokapen geografikoaren araberako eraikuntza planteamendua da. Haraneman edo mendian egon, euste-elementuak eta harzoruaren antolakera aldatu egiten dira; eta hori argi eta garbi ikus daiteke aipatutako hiru galtzada-zatietan, batez ere, Arrazolatik Aramaiora doan horretan.

— MENDIOLATIK ABADINORA DOAN GALTZADA

Abadino eta Urkiola lotzen zituen galtzada horren aztarna gutxi eta banaka batzuk besterik ez zaizkigu iritsi; aipagarriena, Abadino eta Atxarteko Mendiola auzoa lotzen dituena da. Begiratutako dokumentazioak dioenaren arabera, 1865ean egindako konponketa lanaren ondorio da gaur egun duen harzola eta egitura bat dator dokumentazio horretan esaten denarekin.

Así pues, es esta una calzada de 140/148 cm (5 ó 6 pies) de anchura cuyos cordones laterales están truncados por losas planas de tamaño regular en los extemos. El interior está relleno por piedra y cantos de río dispuestos en sentido transversal al de los cordones laterales, la consolidación del firme se consigue rellenando los huecos entre las piedras con arena o detritus de piedras.

Galtzada horrek 140/148 zm.-ko zabalera du (5 edo 6 oin) eta alboetako lokarriak, aldeetan neurri beretsuko harloza lauez daude hautsita. Galtzadaren barrualdea, alboetako lokarrien arabera zeharka jarritako harri eta errekarriz dago beteta eta harzola sendotzeko harea eta harri detritusa sartu da harriek utzitako hutsuneetan.

Calzada de Olaeta.



Olaeta galtzada.


EUSKADI
BIZKAIA
GIPUZKOA
ARABA
1
2
3
4
5
6
7
8
9

## I.B. PROGRAMAS DE CONSERVACIÓN Y PROTECCIÓN I.B. BABES ETA PROTEKZIO EGITARAUAK

| | ÁLAVA<br>ARABA | GUIPUZCOA<br>GIPUZKOA | BIZKAIA |
|---|---|---|---|
| EXCAVACIONES<br>INDUSKETAK | | 1. Labeko koba<br>2. Herriko Barra<br>3. Praile Aitz<br>4. San Salvador de Usurbil<br>5. Errazti<br>6. Santa Maria la Real. Azkoiti<br>7. Lonja del Consulado | 1. Lacilla II<br>2. Punta Lucero |
| CONTROLES ARQUEOLÓGICOS<br>KONTROL ARKEOLOGIKOAK | 1. El Campillo | 8. Alhondiga de Ataun<br>9. Agorregi | 3. Vda. de Epalza<br>4. Elorrrio<br>5. San Pedro de Tabira |
| OTROS<br>BESTERIKOAK | 2. Castro de Buradón<br>3. Iruña<br>4. Layaza | | 6. Tromoitio |

# I.B.1. ARABA-ALAVA



I.B.1.1.
## Actividades del Museo de Arqueología de Álava en el año 1988

En este aspecto se actuó en las siguientes ocasiones:

— Asistencia en el valle de Cuartango a la limpieza de matorrales de los dólmenes de Gúrpide y San Sebastián, llevada a cabo por un grupo de jóvenes dirigidos por Félix Murga.

— Se han hecho varias salidas de reconocimiento al término conocido como Conchas de Haro, con intención de delimitar el yacimiento catalogado como Castro de Buradón que se verá muy probablemente parcialmente afectado por la segunda fase de la variante Salinillas de Buradón-Briñas.

— Se acude al yacimiento de Iruña a fin de comprobar en qué medida puede verse afectado el yacimiento o su entorno por la carretera que rodearía al oppidum. Se arbitran soluciones que no dañen el entorno de Iruña.

— Se estudia el proyecto de Campsa, del trazado del oleoducto a su paso por Álava. La Dirección del Patrimonio Cultural de la D.F. de Álava propone a la empresa un plan para que su realización afecte lo menos posible al Patrimonio Arqueológico Alavés.

— A causa de un aviso se acude al dolmen de Layaza, en la Rioja alavesa donde se comprueba la caída a causa de las lluvias de una de las losas del corredor del dolmen. Se da aviso para su puesta en pie de nuevo.

— Al realizarse un desmonte de tierras en el solar adyacente al centro sociocultural El Campillo, en Vitoria, aparecieron varias estructuras. Se inspeccionó la zona y se tomaron las medidas pertinentes al seguimiento arqueológico de la obra para su documentación.

I.B.1.1.
## Arabako Arkeologia Museoaren Ihardunak 1988ko urtean

Honako egoetan parte hartu izan da:

— Kuartangoko haranean Gurpide eta San Sebastian trikuharrietako sastrakadiak garbitu dira. Gazte talde batek burutu du lana Felix Murgaren zuzendaritzapean.

— Conchas de Aro izeneko ingurura hainbat irteera egin dira, Buradon-eko Kastroa izenez katalogaturiko aztarnategia ezagutu eta mugarritzeko asmotan, ziurrasko Salinillas de Buradon-etik Brinas-era arteko saihesbidearen bigarren aldiak zati baten kaltetuko bait du.

— Irunako aztarnategira joan da, «oppidum» a inguratuko duen bideak aztarnategian edo horren inguruan izango lukeen eragina egiaztatu ahal izateko. Irunako inguruari kalterik ekar ez dakion neurriak hartu dira.

— Arabatik igarotzeko, Campsak egin duen oliobidearen taiuketaren proiektua aztertu da. Arabako F.A.ko Kultura Ondarearen Zuzendaritzak plan bat proposatu dio enpresari, oliobidea egiterakoan ahal denik eta gutxien ikutu dezan Arabako Arkeologia Ondarea.

— Mezu bat jaso eta gero, Arabako Errioxan dagoen Laiazako trikuharrira joan izan zen. Eurien eraginez trikuharriaren pasaiako harlosa bat jausi zela egiaztatu eta horren berri eman zen, zutik jartzeko.

— Gasteizen, El Campillo zentru soziokulturalaren ondoan dagoen orubean lurkenketa bat egiterakoan zenbait egitura azaldu ziren. Ingurua aztertu eta obraren jarraipen arkeologikoari dagozkion neurriak hartu ziren dokumentatuta gelditzeko.

Dolmen de Layaza.



Layazako trikuharria.

# I.B.2. GIPUZKOA-GUIPUZCOA



I.B. 2.1. EXCAVACIONES
I.B.2.1.1.
**Labeko Koba**
(Mondragón, Guipúzkoa)

II Campaña de excavaciones.
Dirigida por Alvaro Arrizabalaga.
Subvencionada por la Dirección de Carreteras de la Diputación Foral de Guipúzcoa.

Dado que la construcción de la Variante de Arrasate incluía en su trazado el punto en el que se localizaba este yacimiento, y ante la imposibilidad de salvar la cavidad, optamos por desarrollar una campaña intensiva de excavación, hasta el «vaciado» total del sedimento, con sus correspondientes materiales. El programa de trabajo, para el que hemos contado con una importante ayuda económica por parte de la Diputación Foral de Guipúzcoa, se ha prolongado desde el mes de marzo a diciembre, incluido un largo período desde julio a mediados de octubre, en el que la excavación ha sido continuada.

A grandes rasgos, podemos hablar para esta cueva de una estratigrafía bastante simple. Hemos identificado diez niveles diferenciados, aún cuando la mitad de ellos (I, II, VI, VIII y X) sean estériles. Los niveles IV y V, diferenciados sólo por un criterio de densidad de industria y de presencia de hogares, presentan una industria lítica característica del Auriñaciense. Así, apenas se contabilizan buriles, y sin embargo son abundantes las láminas con retoque auriñaciense y los raspadores. También abundan los elementos de sustrato.

El nivel VI, estéril, y concretado en buena parte del yacimiento en una espesa masa de sedimento brechificado, separa estos dos niveles del VII. La industria lítica de este nivel se caracteriza por las laminitas retocadas, muy en especial las del tipo Dufour. Las condiciones de

I.B.2.1. INDUSKETAK
I.B.2.1.1.
**Labeko Koba**
(Arrasate, Gipuzkoa).

II Indusketa Kanpaina.
Zuzendaria: Alvaro Arrizabalaga.
Dirulaguntzailea: Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepideetako Zuzendaritza.

Arrasateko Saihesbidea egiteko taiuketan aztarnategi hau zegoen tokia sartzen zenez, eta leizezuloa hortik kanpora utzi ezin zelako, indusketa kanpaina intentsibo bat egitea erabaki genuen sedimentuaren eta bertako material guztien «hustuketa» osoa egin arte. Lan programa hau egiteko Gipuzkoako Aldundiaren diru laguntza garrantzitsua izan dugu; eta martxoan hasi eta abendurarte luzatu zen, eta denbora horretan etengabeko indusketa egin da uztailetik eta urriaren erdirarte.

Leizezulo honek daukan estratigrafia nahiko xinplea da. Hamar maila desberdin berezi ditugu, naiz eta erdiak (I, II, VI, VIII eta X) agorrak izan. IV eta V mailak materialen dentsitatearen arabera eta suak agertzen direlako bakarrik bereizten dira, baina Aurinaziense garaiko berezitasuna diren harrizko materialak agertzen dituzte. Horrela, bada, ia xixelik ez da agertzen; halere, ugari dira aurinaziense erako ikutuak dituzten xaflak eta karraskailuak. Ugari dira sustrato gaiak ere.

VI mailak, agorra eta aztarnategiko zati handi baten zulogunez beteriko sedimentu ore sendoa denez, aurreko bi mailak eta VIIa banantzen ditu. Maila honetako harrizko materialen ezaugarri nagusia landutako xaflatxoak dira, batez ere Dufour erakoak. Hezurrezko materialen irau-

Labeko Koba. Fase de excavación.



Labeko koba. Indusketaldia.

conservación de la industria ósea parecen haber sido más favorables, aunque no contamos todavía con útiles característicos de esta fase. Desde el punto de vista cronológico, este nivel parece equiparable a lo que distintos autores conocen como Protoauriñaciense, Auriñaciense O, Correziense, etc.

En la base del nivel Vil, bastante difusa, encontraremos, en ocasiones, otro nivel estéril, el VIII. Sin embargo, es más frecuente que descanse directamente sobre el nivel IX, un espeso paquete (llega a los dos metros en algún punto) con material paleontológico de gran interés (destacan entre otros, los restos de mamut, rinoceronte o hiena). En la base de este depósito, todavía dentro del nivel IX, hemos hallado indicios de una tenue ocupación del Chátelperron.

La excavación se dio por cerrada en los últimos días de diciembre de 1988, y apenas un mes más tarde, los restos de la cueva fueron destruidos ya por la maquinaria de la empresa constructora. Afortunadamente, circunstancias ajenas a la excavación habían impuesto un cierto retraso general en las obras de la carretera, por lo que, a pesar de caducar en octubre el plazo inicialmente fijado para terminar la excavación, no resultó demasiado problemático prolongarlo hasta esta última fecha.

I.B.2.1.2.
**Herriko Barra**
(Zarautz, Guipúzcoa)

Excavación de urgencia.
Dirigida por J.A. Mujika Alustiza.
Subvencionada por la Diputación Foral de Guipúzcoa.

El yacimiento de Herriko Barra se localiza en el casco urbano del municipio de Zarautz. Su nivel arqueológico fue descubierto gracias al aviso dado por el arquitecto de la obra (X. Unzurrunzaga) sobre la presencia de troncos y hojas, bien conservados, a varios metros de profundidad. Durante la recogida de muestras, para un estudio sedimentológico y palinológico, se halló alguna lasca aislada de sílex que nos llevó a observar con más detenimiento la posible presencia de más restos e incluso la de algún nivel arqueológico. Tras numerosos días de trabajo se observó la presencia de un nivel arqueológicamente fértil bajo una ciénaga, justamente en su contacto con un nivel inferior de playa.

nerazpena baldintza hobeetan egin dela dirudi, nahiz eta aldi honetako tresneria berezirik oraindik ez dugun. Kronologiaren ikuspuntutik, maila hau autoreek izen hauekin ezagutzen dituztenen erakoa litzake: Protoaurinaziensea, Aurinaziensea 0, Korreziensea, ea.

VII Mailaren barrenean, muga zehatzik gabekoa denez, batzutan beste Maila agor bat aurkitu daiteke, VIIIa. Halere, gehienean IX Mailaren ganean datza. IX Maila geruza sendo bat da (punturen batetan ia bi metro hartzen ditu) eta guztiz interesgarria den paleontologiako materialak ditu (besteak beste, mamut, errinozero edo hiena aztarnak). Hondakin biltegi honen barrenean, IX Mailan oraindik, Chatelperron erako aztarna markal batzuk aurkitu ditugu.

Indusketa lanak bukatutzat utzi ziren 1988ko abenduaren azken egunetan eta, handik hilabetera, errepidea egin behar zuen enpresaren makineriak hondatuta utzi zuen leizezuloa. Zorionez, indusketarekin zerikusirik ez zuten arrazoiek atzeratu zituzten errepideko obrak. Horrela, indusketarako baimena urrian bukatu arren, ez genuen arazo handirik izan aipatu azken egunetararte luzatzeko.

I.B.2.1.2.
**Herriko Barra**
(Zarautz, Gipuzkoa)

Premiazko indusketa
Zuzendaria: J. A. Mujika Alustiza.
Dirulaguntzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia

Herriko Barra aztarnategia Zarauzko udalerriko herri barruan dago. Obrako arkitektoak (X. Unzurrunzaga), hainbat metroko sakonean nahiko ondo gordetako enbor eta orbelak agertu zirenean, horren berri eman zuen eta horrela aurkitu zen maila arkeologiko hori. Azterketa sedimentologiko eta palinologikoa egiteko aztarna batzuk bildu zirenean, sukarrizko laska solte bat edo beste aurkitu zen. Hori horrela izanik, kontu gehiagoz begiratu genuen ea beste aztarnarik edo, behar bada, arkeologia mailaren bat aurkitzen zen. Lanean egun asko aritu ondoren, lokazti baten azpian maila arkeologiko aberats bat zegoela ikusi zen, hain zuen hondartzako beheragoko maila batekin bat egiten duen tokian.



Herriko Barra. Restos vegetales descubiertos en las excavaciones.

Aztarnategiko ¡ndusketan aurkltutako landare aztarnak.

Los materiales arqueológicos hallados, correspondientes a un único nivel de ocupación, proceden de la recogida hecha del mismo perfil, mientras avanzaba la obra, y de la excavación de urgencia de una superficie de unos 70 $m^2$. Esta se realizó el mes de febrero, y duró una semana, colaborando en ella una veintena de personas, miembros de la Sociedad de Ciencias Aranzadi y estudiantes de los E.U.T.G.

El lugar tenía un gran interés desde varios aspectos. Desde el punto e vista geológico presentaba el interés, excepcional, de permitir realizar un estudio de las sucesivas regresiones y transgresiones marinas durante el Holoceno, contando para ello con un perfil de 6 m de potencia.

En cuanto al nivel arqueológico propiamente dicho ha aportado datos de gran interés que serán publicados próximamente. Así, gracias al estudio palinológico, se ha podido determinar que en el momento de la formación del nivel arqueológico en el lugar existía una aliseda, aunque había también otras especies arbóreas (olmos, avellanos, etc.) y herbáceas.

La paleontología, en cuanto a macromamíferos se refiere, ha determinado la presencia exclusiva de fauna salvaje, principalmente ciervo. Otras especies presentes son el uro, jabalí, etc.

Entre la avifauna destacan, por su abundancia, los restos de *Uria aalge,* y, por su excepcionalidad, algunos huesos de *Alca impennis,* actualmente extinguida.

Por otra parte, como es normal, por su proximidad, existen también aportes marinos a la dieta alimenticia humana (lapas, mejillones, vértebras de pez, etc.), pero sospechamos que los restos hallados no representan proporcionalmente el aporte que debieron suponer, probablemente por su degradación.

En cuanto a los restos industriales, tanto líticos como óseos, es de destacar su gran interés por su excepcionalidad en la vertiente atlántica. Se han recuperado un millar de restos indusriales y un centenar de útiles. Entre estos últimos destacan los geométricos con retoque a doble bisel, los raspadores, denticulados y láminas retocadas, etc. Este utillaje, al menos en otras áreas geográficas (valle del Ebro, Levante, etc.) corresponde a momentos plenamente neolíticos (con cerámica cardial, lisa, etc.). En nuestro caso, no hemos encontrado ninguno de los elementos tradicionalmente considerados como relacionados con la neolitización (cerámica, domesticación, piedra pulimentada) y sólo por el importante desarrollo de los geométricos de retoque a doble bisel y por las dataclones obtenidas (5.800 en la base y 5.730 en el nivel superior) podemos atribuirlo al Neolítico.

Aurkitu diren arkeologia materialak okupazio maila bakar batekoak dira; Obra aurrera zihoala, perfil beretik eta 70 $m^2$.ko azalerako premiazko indusketatik bildurikoak. Indusketa hori otsailean egin zen; astebete iraun zuen eta hogeiren bat lagunek parte hartu zuten, Aranzadi K. E.ko kideak eta E.U.T.G.ko ikasleak.

Tokiak bazuen interesik hainbat ikuspuntutik. Geologiako ikuspuntutik, Holozeno garian itsasoak izan zituen gorakadak eta beherakadak aztertzeko aukera aparta ematen zuen; 6 m.ko gaitasundun perfila zegoen hortarako.

Arkeologia mailari berariz dagokionez, interes handiko datuak agertu ditu eta laister argitaratuko dira. Horrela, azterketa palinologikoari esker, arkeologia maila sortu zen garaian toki horretan haltzaga bat zegoela egiaztatu ahal izan da; eta beste zuhaitz eta belar mota batzuk ere baziren bertan (zumarrak, urritzak, ea.).

Makrougaztunei dagokienez, bestalde, Paleontologiak fauna basatia baino ez du aurkitu, oreina batez ere. Beste mota batzuk ere badira, hala nola, uroa, basurdea, ea.

Hegaztien faunaren artean nagusiki agertzen diren aztarnak «Uria aalge»arenak dira; eta berebiziko garrantzia du «Alca impennis»aren zenbait hezur aurkitzeak, gaurregun iraungita bait dago mota hori.

Bestalde, berez itsasoa hurbil dagoelako normala denez, giza elikadurarako itsasoko fruituen aztarnak aurkitzen dira (lapak, muskuiloak, arrain hezurkateak, ea.). Baina, aurkitu izan ditugun aztarna kopuruak ez du adierazten zenbateko garrantzia izan zuen giza talde haien elikadurarako; behar bada asko eta asko galdu edo hondatu direlako.

Tresna aztarnei dagokienez, bai harrizkoak, zein hezurrezkoak, interes handia daukate salbuespentzat hartu daitezkeelako atlantiar isuraldean. Mila bat material eta ehun bat tresna jaso dira. Hauen artean nabarmen dira geometrikoak, bi biseletara landuak, karraskailu horzdunak eta xaflatxo landuak, ea. Honako tresneria, beste lurralde geografiko batzutan (Ebro harana, Lebante, ea.) bete-betean neolitiko garaikoa izaten da (keramika kardiala, laua, ea.). Gure kasuan, ohiz neolitikoarekin lotzen diren ezelango gairik ez dugu aurkitu (keramika, domestikaketa, harri leundua), baina, bi biseletara egindako lanketa geometrikoa batetik eta eman duten datagatik bestetik (5.800 barrenean eta 5.730 gorengo mailan) Neolitikoaren barnean sartu behar dugu.

Finalmente, decir que, futuros trabajos en la zona, quizás, podrán aportar algunos datos que permitan perfilar un esquema sobre la transición de las economías depredadoras-recolectaras a las productoras en la vertiente atlántica.

I.B.2.1.3.
**Cueva de Praile Aitz II**
(Deba, Guipúzcoa)

Excavación de urgencia.
Dirigida por Eloísa Uribarri.
Subvencionada por la Diputación Foral de Guipúzcoa.

Este yacimiento fue descubierto en 1986 por el grupo Munibe Taldea de Azkoitia.

En 1988, teniendo noticia de su inminente destrucción por el avance de una cantera, se emprendieron las gestiones para su excavación por el procedimiento de urgencia.

La cueva se localiza en la peña de Praile Aitz, dentro del término municipal de Deba, en el barrio de Sasiola, con las siguientes coordenadas:

Hoja 63 Eibar Long. 01° 19' 05'' Lat. 43° 16' 32 Altura 120 m.

Hoja 63-20 Mutriku X. 551.285 Y. 4.791.333 Z. 120

El yacimiento presenta un pequeño aterrazamiento a la entrada de la cueva de aproximadamente 15 $m^2$. Al interior puede accederse por dos entradas de 1 m y 0,75 m de altura. Adentro existe una pequeña sala que alcanza aproximadamente 13 $m^2$, prolongándose a través de una estrecha gatera hasta alcanzar otra pequeña sala de menores dimensiones sin yacimiento arqueológico.

A lo largo de los meses de agosto, noviembre y diciembre se realizaron en primer lugar labores de limpieza, tanto en el interior como en el exterior de la cueva, para proceder a continuación a la cuadriculación de la totalidad del yacimiento. Una vez realizados estos trabajos previos se procedió a su excavación en los cuatro primeros lechos, de tres centímetros de potencia cada uno.

En la excavación han participado miembros de la Sociedad de Ciencias Aranzadi, así como estudiantes de los E.U.T.G. de Donosti y de la Universidad del País Vasco (Gasteiz).

Bukatzeko, behar bada, inguruan gerora egingo diren lanek agian emango dute daturik nahiko, atlantiar isuraldean ekonomia harrapatzaile-biltzailetik ekoizlerako bilakaera argituko dutenik.

I.B.2.1.3.
**Praile Aitz II Leizezuloa**
(Deba, Gipuzkoa)

Premiazko indusketa.
Zuzendaria: Eloisa Uribarri.
Dirulaguntzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia.

Azkoitiko Munibe Taldeak aurkitu zuen aztarnategi hau 1986an.

Harrobi bat aurrera zihoala eta leizezulo hori desegin behar zela jakitean; 1988an zenbait jardunbide egin ziren premiazko prozeduraz indusketa egin ahal izateko.

Debako udal mugarteko Sasiola auzoko Praile Aitz izeneko haitzean dago leizezuloa, eta honako koordenadak ditu:

Orria 63 Eibar Long. 01° 19' 05'' Lat. 43° 16' 32'' Garaiera 120 m.

Orria 63-20 Mutriku X.551.285 Y. 4.791.333 Z.120.

Leizezuloaren sarreran 15 $m^2$ inguruko terrazatxo modukoa dauka aztarnategiak. Barrenera sartzeko bi sarrera daude: 1 m. eta 0,75 m. garaierakoak. Barruan gela txikitxo bat dago, 13 $m^2$ ingurukoa, eta katazulo estu batetik zehar luzatzen da beste gela txiki batera iritsi arte; honek neurri txikiagoak ditu eta ez dauka aztarnategi arkeologikorik.

Abuztuan, azaroan eta abenduan garbiketa lanak egin ziren, bai leizezuloaren kanpokaldean eta bai barrukaldean ere. Gero, aztarnategi osoaren kuadrikulazioa egin zen. Aurre lan hauek egin ondoren, lau lehenengo ohantzeetako indusketa egin zen, bakoitza hiru zentrimetroko gaitasunekoa.

Indusketan Aranzadi K. E.ko kideak izan dira partaide, baita Donostiko E.U.T.G. eta Euskal Herriko Unibertsitateko (Gasteiz) ikasleak ere.

De los trabajos realizados hasta el presente podemos deducir las siguientes consideraciones provisionales:

1. Se localiza un primer nivel de tierra suelta y arenosa en el interior, y más oscura y plástica en el exterior.
2. Los materiales asociados a este nivel son de tipo metálico, cerámiso, lítico, conchas y restos de fauna.
3. Estos materiales se distribuyen tanto en el interior como en el exterior del yacimiento, si bien son más fecuentes en el interior.

Se han recogido muestras para su datación por $C_{14}$

La totalidad de las tierras extraídas están siendo cribadas con agua a presión en las proximidades de la cueva.

A lo largo de 1989 se llevará a cabo una segunda campaña que previsiblemente permitirá concluir en su totalidad los trabajos.

Orain arte egindako lanen ondorio lez honako behinbehingo burutaziok atera genitzake:

1. Lehenengo mailan aurkitzen den lurra harroa eta harezkoa da barnean, eta ilunago eta malguagoa kanpoan.
2. Maila honetako materialak, metalezkoak, buztinezkoak, harrizkoak, maskorrak eta fauna aztarnak dira.
3. Material hauek bai aztarnategiko barnean zein kanpoan aurkitu daitezke, baina ugariagoak dira barnekaldean.

C14aren data frogak egiteko materialak bildu dira.

Atera diren lur guztiak leizezulo inguruetan bahetzen dihardugu, hortarako presioko ura erabiliz.

1989 urtean zehar bigarren kanpaina burutuko da, eta ziurrasko lan guztiak amaitzeko aukera emango du.



Praile Aitz. Fase de excavación.

Praile Aitz. Indusketaldia.

I.B.2.1.4.
**Parroquia de San Salvador**
(Usúrbil, Guipúzcoa)

Intervención arqueológica de urgencia.
Dirigida por Dona Gil Abad.
Financiada por Curso de Formación de Jóvenes en Arqueología Urbana/Diputación Foral de Guipúzcoa.

Dentro del proyecto de restauración que se estaba llevando a cabo en el interior de la parroquia de Usúrbil (San Salvador) y en tanto en cuanto ésta afectaba al subsuelo de la misma, se contó con el asesoramiento en el mismo del Curso de Formación de Jóvenes en Arqueología Urbana.

Antes de iniciar la labor arqueológica en la iglesia, contábamos con algunas, aunque escasas, evidencias documentales, acerca de lo que podría conservar oculto el suelo, bajo la tarima que entonces tenía:

— En primer lugar, la iglesia está documentada antes de 1371, fecha de fundación de la villa, situada en el barrio actual de Kalezar ó Usurbilzaharra).



De hecho, cuando se concede el fuero a Usúrbil (Kalezar) San Salvador, aunque alejado de dicho centro urbanizado, seguirá realizando las funciones de parroquia de éste.

No obstante, la obra que podemos contemplar hoy, presenta los rasgos típicos de una obra del llamado estilo gótico-vasco, de grandes dimensiones y una sola nave, por lo que uno de nuestros objetivos era localizar (si aún se conservaba), algún lienzo de la planta (a nivel de cimentación) que debió tener esta primera edificación, de menores dimensiones y distinta traza a la actual.

— Por otro lado, se sabía de la existencia de enterramientos en el interior de la iglesia, de tipo familiar, algo muy frecuente en las iglesias del País Vasco, de éstas fechas y características, y que de algún modo perduraba en la memoria de los usurbiltarras. Así, a la hora de colocarse a orar en la iglesia, lo hacían en aquel lugar que sabían, pertenecía a la familia.

En este caso, al levantar la tarima actual, se pudo observar el modo en que estaba distribuido anteriormente, el suelo de la iglesia:

En la parte delantera de la nave y más próxima al altar, el suelo no contaba con pavimento alguno. Sería el espacio ocupado por los bancos, lugar donde se colocaban los hombres en las celebraciones religiosas.

I.B.2.1.4.
**Salbatore Parrokia**
(Usurbil, Gipuzkoa)

Premiazko arkeologia indusketa
Zuzendaria: Dona Gil Abad.
Dirulaguntzailea: C.F.J.A.U/ Gipuzkoako Foru Aldundia.

Usurbilgo Salbatore parrokia barnean egiten ari zen berriztaketa proiektuaren barruan eta bertako zorupeari zegokion neurrian, hiri arkeologia gaietan gazteen prestakuntzarako Ikastaroaren aholkularitza izan zen bertan.

Elizan lan arkeologikoa hasi aurretik, lurrean, orduan zeukan oholtzapean gorderik egon zitekeenaren zenbait nabaritasun izan genituan, agiri batzuei ezker, nahiz eta gutxi izan:

— Hasteko, 1371 baino lehenago dokumentatuta dago eliza; urte horretakoa da hiribilduaren sorrera, oraingo Kalezar edo Usubilzaharra auzoan kokatua.

Hain zuzen, Usurbili (Kalezar) forua ematen zaionean, Salbatorek, nahiz eta hirigunetik urrunduta egon, bertako parrokia funtzioak burutzen jarraituko du.

Halere, gaurregun ikus daitekeen obrak, euskal gotikoa izenez ezagutzen den estiloko obraren ezaugarri argiak ditu: neurri handikoa eta nabe bakarrekoa. Horregatik, gure helburuen artean izan genduen bat honakoa izan zen: lehen eraikintza horrek izango zuen oinaren (zimendu mailan) ehunen bat lortzea (baldin orindik egon bazegoen). Neurri txikiagoak izango zituen eta oraingo taiuketatik diferentea beharko zuen.

— Bestalde, jakinekoa zen eleiza barruan hilobiratzen zela, eta familia bakoitzak bere lekua izaten zuela. Ohitura hori hedatua zegoen garai eta ezaugarri horietako Euskal Herriko eleizetan. Usurbildarrek bazuten horren aspaldiko berri. Horrela, eleizan otoitz egiteko tokia hartzen zutenean, familiari zegokion sepulturan jartzen ziren.

Horrela bada, oraingo oholtza jaso zenean, aurrera eleizako zoruak izan zuen zatiketa ikusi ahal izan zen:

Nabearen aurrekaldean eta altaratik hurbil, beheak ez zuen inolako zolarik. Bankuak egoten ziren tokia izango zen; eleizkizunetan gizonek hartzen zuten tokia, alegia.

San Salvador de Usurbil.
Cubiertas de sepulturas.




Usurbilgo San Salvadoren.
Illobi estalkiak.

En la zona central y trasera, llegando hasta la pared W (coro o pies de la iglesia), el suelo presentaba un entramado de madera a base de travesaños que delimitaban espacios rectangulares iguales, con su desarrollo más largo en sentido E-W.

Cada espacio estaba ocupado por una cubierta, también de madera que llevaba en la mayoría de los casos el nombre de la casa-familia a la que pertenecían.

Estos nombres que aparecen inscritos en las cubiertas, aún perduran hoy, pudiendo identificarse con los nombres de caseríos localizados dentro de este término municipal.

Debido a las malas condiciones de conservación de este entarimado, se hizo necesario desmontar toda la estructura, previo a su nueva colocación y acondicionamiento del suelo, dejándolo como pavimento visible del interior de la iglesia.

Al mismo tiempo, se hicieron sondeos de modo que se localizaron distintas estructuras, relacionadas la mayoría de ellas, con la función funeraria que ha tenido el interior de esta iglesia:

— Estructuras subterráneas, en sillería y/o mampuesto, para albergar enterramientos destacados.

— Muro de desarrollo transversal (dirección N-S), separación de la zona de bancos y la del entramado de sepulturas, donde se apoyaba éste.

— Estructura subterránea, donde debió albergarse la sacristía, bajo el actual altar, etc.

Entre todas ellas, también se ha podido localizar un muro que parece pudiera tener relación con la planta de una primitiva iglesia, aunque no se puede afirmar nada sobre esto, ya que apenas se puso al descubierto.

El material de mayor interés recogido en esta labor de sondeo, es el material numismático, que abarca una cronología desde el siglo XIV al XIX.

Nuestra labor, por tanto, ha sido de localización exacta sobre planos, fotografías, etc. y registro detallado de cada uno de estos elementos de interés arqueológico, de modo que, tanto en la obra proyectada como en sucesivas, se eviten destrozos innecesarios de algo que hoy en día nos aporta una información importante para el estudio de ritos funerarios y espacios religiosos y el día de mañana serán doblemente apreciados. Al tiempo, se ha pretendido conservar este espacio para su uso cotidiano, del modo más entrañable y lícito desde un punto de vista histórico-arqueológico.



Erdigunean eta atzean, M.ko hormara iritsi arteraino (korua edo eleizaren oinak), behean egurrezko hormazurra ageri zen; errektangulu berdineko tarteak mugatzen zituzten langez egina zegoen, luzeera E-M zentzuan emana zeukalarik.

Tarte bakoitza egurrezko estalki batek hartzen zuen, eta gehienetan zegokion etxe edo familiaren izena zeraman.

Izen horiek estalkietan inskribatuta agertzen dira gaurregun ere, eta udal mugartean kokatuta dauden baserrien izenekin identifikatu daitezke.

Hormazurra egoeratxarrean zegoenez, egitura guztia kendu behar izan zen berria jarri eta behea egokitu aurretik, eleizaren barruko zola agirian utziz.

Denbora hortan, zundaketak egin eta zenbait egitura aurkitu ziren, gehienak eleiza honek izan duen hilobiratze funtzioarekin zerikusia zutenak:

— Harlanduz eta/edo harrihormaz egindako lurpeko egiturak, hilobiratze bereziak hartzeko.

— Zeharkako murrua (I-H norabidean), bankuen alderdia eta hilobien hormazurra banatzen zituena; berton tinkatzen zen hormazurra.

— Lurpeko egitura, bertan egongo zen sakristeria, gaurko altararen azpian, ea.

Guztien artean murru bat ere aurkitu da. Dirudienez, lehenengo eleiza baten oinarekin zerikusia izan dezake, baina ezin da horrelako ezer egiaztatu, apurtxo bat baino ez zelako bistan jarri.

Zundaketa lan hauetan bildutako materialik interesgarriena numismaikoa izan da, XIV.etik eta XIX.erako kronologia hartzen duelako.

Gure lana, beraz, arkeologiarako interesa duten gai guztiak banan banan errejistratzea izan da, planu, argazki, etabarretan kokatuta utziz. Horrela, proiektuak hartzen duen obran eta gerora egin daitezenetan behar ez den hondamendirik gerta ez dadin. Gaurregun garrantzi handiko informazioa eskaitzen digute aztarna horiek, hilobiratze ritoak eta erlijio guneak ezagutzeko, eta etorkizunean are gehiago baliostatutko dira. Aldi berean, gune hori egunero erabiltzeko gorde nahi izan da, historia eta arkeologiako ikuspegitik erarik kutunenean eta bidezkoenean.

I.B.2.1.5.
**Presas de Errasti**
(Azpeitia, Guipúzcoa)

Intervención arqueológica de urgencia.
Dirigida por M.ª Jesús Zaldua Goena.
Subvencionada por FERROVIAL, S. A., y el Curso de Formación de Jóvenes en Arqueología Urbana.

El origen de esta excavación se remonta al proyecto de construcción del embalse de Nuarbe sobre el río Ibai-Eder (Azpeitia). Concretamente, la cimentación del dique principal suponía la destrucción de la presa de piedra perteneciente a la antigua terrería de Errasti. Ferrería, que con su presa, está documentada en 1497.

Se realizó un informe sobre dicha presa de piedra en mayo de 1988, y el mismo mes se estuvo presente al inicio de los trabajos de remoción de la capa de sedimentos aguas arriba de la presa, constatándose la existencia de una estructura de madera bajo ella. Estructura que corespondería a la primera presa de madera. A finales de junio del mismo año se elaboró un proyecto arqueológico para la excavación y catalogación del conjunto patrimonial de las presas de Errasti, que fue aprobado por la Confederación Hidrográfica del Norte de España (C.H.N.E.) y se decidió llevar a cabo la excavación.

Los trabajos arqueológicos se realizaron entre julio y primera quincena de septiembre de 1988. Para ello se contó con la infraestructura tanto humana como técnica de la empresa Ferrovial, S.A., empresa que ejecuta las obras del embalse de Nuarbe.

Durante estos trabajos, aparte de las ya citadas presas de piedra y de madera, se descubrieron los restos de una tercera presa, también de madera, aguas arriba de las anteriores.

/, *La presa de piedra.*

Esta presa, orientada de Este a Oeste, solamente conservaba el estribo oeste; y en su totalidad medía 17,75 metros de largo por 3,70 metros de alto, y en su conjunto se asentaba directamente sobre la roca natural. En su fábrica se observaban diferentes fases:

Aguas abajo presentaba un lienzo de sillarejo muy irregular que únicamente se interrumpía por un añadido de cemento a 7,15 metros del extremo Este, y a 1,5 metros desde la cumbrera, cuyas dimensiones eran de 0,96 metros por 2,70 metros, que según el actual dueño del caserío Errasti, eran la impronta de los reparos que se tuvieron que hacer en la presa por las inundaciones sufridas en 1956.

I.B.2.1.5.
**Errastiko Presak**
(Azpeitia, Gipuzkoa)

Premiazko arkeologia indusketa
Zuzendaria: M Jesus Zaldua Goena
Dirulaguntzaileak: Ferrovial, S.A. enpresa eta Hiri Arkeologia gaietan Gazteen Prestakuntzarako Ikastaroa.

Ibai-Eder ibaian (Azpeitia) Nuarbeko urtegia eraikitzeko proiektutik sortzen da indusketa hau. Zehazki, kai nagusiari oinarriak hartzeko, Errastiko aintzinako olako harrizko presa apurtu egin behar zen. Ola hori 1497tik aurrera dokumentatuta dago.

1988ko maiatzean harrizko presa horri buruzko txosten bat egin zen. Hil horretan, presatik gora zeuden sedimentuak aztertzen hasi zirenean bertan egon ginen; eta azpian egurrezko egitura bat zegoela agertu zen. Egitura hori egurrezko lehenengo presarena izango zen. Urte horretako ekainaren azkenetara Errastiko presen ondare gunearen indusketa eta katalogazioa egiteko proiektu arkeologiko bat prestatu zen. «Confederacion Hidrografica del Norte de España (C.H.N.E.)» delakoak onartu egin zuen proiektua eta indusketa burutzea erabaki zen.

1988ko uztailan eta iraileko lehenengo hamabost egunetan egin ziren arkeologia lanak. Hortarako, Nuarbeko urtegiko obrak burutzen ari den Ferrovial, S.A enpresaren azpiegitura teknikoa eta gizonena erabili izan zen; baita Hiri Arkeologia gaietan Gazteen Prestakuntzarako Ikastaroarena ere.

Lan hauek egiterakoan, aipatutako egurrezko eta harrizko presez gain, beste hirugarren baten aztarnak aurkitu ziren; hau ere egurrezkoa; aurrekoak baino gorago kokatzen zen ibaian bertan.

1. *Harrizko presa.*

Presa hau Ekialdetik Mendebal aldera zuzenduta zegoen; mendabal aldeko horma-bularra baino ez zuen orduan gordetzen; guztira 17,75 metro luze zituen eta 3,70 metro garai; osoan berezko harkaitzean zuzenean oinarrituta zegoen.

Ibaian behera erdi landutako harrizko ehun ezberdina agertzen zuen; Ekialdeko bazterretik 7,15 metrotara eta gailurretik 1,5 metrotara zegoen saltsarrizko zati batez etenda, eta honen neurriak 0,96 m bider 2,70 m ziren. Errasti baserriko oraingo ugasabaren esanera, 1956an jasandako uholdeen eraginez presak izandako kalteak konpontzeko egin zen.

Aguas arriba, por su parte, presentaba dos fases claras: la primera desde la cumbrera hasta un metro de profundidad constituida por sillares, sillarejo y cantos con una argamasa muy clara como aglutinante; y la segunda desde esta altura hasta el fondo en la que el material predominante lo constituían los bloques de escoria, muy variables en cuanto a sus dimensiones y con una argamasa muy oscura con elementos ferruginosos y cenizas.

La sección de esta presa era trapezoidal: la cumbrera medía 1,70 metros de ancho, mientras en la base alcanzaba algo más de los 2 metros.

En cuanto al canal, este se encontraba al Oeste de la presa, siendo el muro del estribo parte integrante del mismo, y estaba constituido por grandes losas dispuestas irregularmente sobre la roca natural previamente rebajada.

*2. La primera presa de madera.*

A un metro y medio aguas arriba de la presa de piedra, y paralela a ella, se encontró el inicio de la coloma o forro de la primera presa de madera. Esta coloma estaba formada por vigas inclinadas dispuestas longitudinalmente a la corriente del río, con un desnivel medio de un 77% y medía en su conjunto 10,75 metros de largo por 3,60 de alto. A 3,71 metros de la primera viga al Este, se encontraba el desagüe, de 3 metros de alto por un metro de ancho. Estaba constituido por dos vigas laterales y longitudinales con rebaje en sus caras frontales donde se apoyaban una serie de tablas dispuestas transversalmente. Esta coloma presentaba restos de calafate y escoria en las juntas, con el fin de impermeabilizarla.

Aparte de este nivel de coloma, esta primera presa de madera presentaba otros cuatro más configurados por maderas transversales y longitudinales que aumentaban en su número según se llegaba al último nivel del fondo.

En su conjunto estaba formado por 160 maderas, entre vigas, tablas, troncos y estacas; de muy variada sección: rectangulares, cuadrangulares y circulares. Las juntas y empalmes entre las diferentes maderas se realizaba por medio de estacas o pasadores de madera hincados, por aproximación de vigas con chaflanes o simplemente por aproximación.

Esta presa en sus niveles inferiores aparecía apoyada en la presa de piedra; y por otra parte en el nivel superior presentaba un pequeño forro adosado totalmente a ella justo al lado del canal.

El único material arqueológico que se obtuvo en esta presa, y en el resto de la excavación, fue un pequeño

Ibaian gora, bestalde, bi zati argi bereizten ziren: lehenengoa, gailurretik eta metro bateko sakonera arte, harlanduz, harri, erdilanduz eta legarrez egina, itsaskin lez kareore argia zuelaril; eta bigarrena, toki horretatik eta hondoraino, gai nagusia burdin-letzo blokeak ziren; oso neurri deberdinetakoak ziren, eta burdina eta errautzak zituen kareore guztiz iluna zuen itsaskin gisa.

